



Idoia Karrera (ezkerrean)  
eta Loiola Zuazu.



“ ”

## *Gu beti irabaztera ateratzen gara, emakumeen nahiz gizonen aurka jokatu*

Irungo Landetxa auzoko pala txapelketa mistoan, hogeik bikotetik bakarra da emakumeek osatua, 40 lagunetik bi baino ez dira emakumeak:

Idoia Karrera eta Loiola Zuazu. Lehia, txapelketa misto eta ez mistoen arteko aldeez eta joko-mailaz mintzatu gara haiekin. "Emakumeok behar ditugu gure artean kirolean eroso aritzeko guneak. Nola babestu gune horiek eta aldi berean uztartu hori kirol mistoarekin?"



MIKEL GARCIA IDIAKEZ



DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

**40 parte-hartzailetik bi emakume baino ez, eta gainera bikote berean. Gizonen munduan sartu zarete?**

**Idoia Karrera:** Ohituta gaude gizonen artean aritzera, baina txapelketa mistoan bikotekide emakumezkoarekin parte hartzen dudana lehen edo bigarren aldia izango da, normalean gizona izaten da nire palako bikotekidea.

**Loiola Zuazu:** Oso emakume gutxi ikusi ohi da txapelketa mistoetan, eta horregatik, nahiz eta mistoa izan, izena ematen duzularik badakizu edo aurreikusten duzu ziurrenik gizonen aurka arituko zarela gehienbat.

**Horrek parte hartzeko gogoia kendu diezazueke?**

**Karrera:** Kontua da txapelketetatik kanpo ere, entrenamenduetan, asko ibiltzen garela gizonekin, eta beraz, horrek ez gaitu kikiltzen, ez gaitu inpresionatzen. Ni behintzat ez nau baldintzatzen, eta gainera giro ona egon ohi da, ez naiz sentitu baztertua edo gutxietsia emakume izateagatik. Maila ematen dugu, horrek ere zerikusia izango du agian.

**Zuazu:** Oso gustura aritzen gara, bai, baina Idoiak dioen moduan, zerikusia du aisialdian, txapelketetatik kanpo, gizonekin aritu ohi garela.

**Gustura heltzen diozue orduan txapelketari, baina ulertu dezakezue apenas emakumerik duen txapelketan parte hartzeko gogo gutxi izatea emakume batzuek?**

**Karrera:** Zalantzarik gabe. Gainera, emakumeok askotan joera dugu gure burua gutxiesteko, eta emakumeekin entrenatzen duten emakumeek halako txapelketetara saltoa ematea beti ez da erraza. Ahalduntze kontua ere bada, halakoetan emakumeak gehiago kikiltzen garelako, txikiagoak egiten gara.

**Zuazu:** Beharbada beste modu batera ikusi beharko genuke txapelketa: ongi pasatzera goaz eta ea zer moduz doan.

**Karrera:** Hori da, txapelketa irabazi ez duzulako irabaziko, baina helburua izan daiteke ongi pasatzea, palan aritzen den jende gehiago ezagutzea, sarea handitzen joatea... Aldi berean, dena den, halako txapelketa herrikoietan oso maila ezberdinak egoten dira: bikote potenteak eta maila eskasagoa duten bikoteak, mutilez osatuak; mutil horiek, nahiz eta maila baxuagoa izan, txapelketara datoz ongi pasatzera eta kito, eta emakumeei agian gehiago kostatu daki-guke, iruditzen zaigulako gizonen aurka jokatzeko gehitxo izan daitekeela, edo dugun autoexijentzia mailagatik, izan ditzakegun konplexuengatik...

Nire kasuan, kuadrillako mutil batekin hasi nintzen txapelketetan parte hartzen, berak animatu ninduelako; nigan gaitasunak ikusten zituen eta esaten zidan, "benga, biok elkarrekin kristorena egin dezakegu". Horrek indar handia eman zidan, nire buruarengan sinesten lagundu zidan.

**Zuazu:** Inportantea da kantxan eroso sentitzea, bikotekidearekin, zure jokoa-rekin, partidua-rekin... eta ez baduzu zure buruarengan konfiantza hori, normalean da txapelketa batean zure burua nabarmendu nahi ez izatea.

**Karrera:** Txapelketa ez baita soilik beste bikote baten aurka aritzea, jendea dator ikustera, eta txiki ikusten baduzu zure burua...

**Zuazu:** Batzuetan, txapelketan jokatzeko bera da, hain justu, autokontzeptu hori gainetik kentzeko modua.

**Karrera:** Palan elkarrekin entrenatzen duten emakume taldeak ere bultzada handia dira, txapelketara jauzi egiteko. Batetik, trebatzen eta segurtasuna berenganatzen doazelako, eta bestetik, horietakoren batek txapelketa batean parte hartzen badu, bidea irekitzen dielako besteak. "Hara, horrek parte hartu badu eta



“ ”

**Udako pala txapelketan hiru maila jarri zituzten, hirurak mistoak, eta sekulako arrakasta izan zuen, bakoitzak bere burua kokatu zuen egokien ikusten zuen mailan**

Idoia Karrera

ni haren aurka jokatzeko aritzen banaiz, nik ere har dezaket parte txapelketan, zergatik ez?”

**Ohituta zaudete aisialdian gizonekin batera aritzen eta horrek laguntzen du txapelketa mistoetan parte hartzeko garaian. Baina ez da ohikoena: adin batetik aurrera, mutilek eta neskek bereizita praktikatu ohi dute kirola.**

**Karrera:** Hori da, gizonak gizonekin eta emakumeak emakumeekin kirola egitera bideratuta dago egitura. Guk geuk ere, Atxiki pilota elkartean [Irungo Atxiki pilota elkarteko entrenatzailea da Idoia Karrera], emakume taldea dugu, eta emakumeak emakumeekin aritzen dira entrenatzen. Azken finean, emakumeok behar ditugu eroso sentituko garen gu-neak kirola egiteko, eta funtsezko guneak dira gainera, bestela emakume asko zu-

zenean ez liratekeelako palan arituko. Kontua da, nola babestu gune horiek eta aldi berean uztartu hori kirol mistoarekin? Konplexua da, bereizteak ekar baitetzake kirol mistora salto egitea zailagoa izatea batzuentzat, batez ere emakumeei iruditzen zaigulako gizonen maila hobea izan dezaketela. Nire ustez hori da traba nagusietakoa, eta aurreiritziak dira, maila antzekoa izan dezakegulako.

**Maila (eman ez eman) da orduan oztopo handienetakoa?**

**Karrera:** Pasa den udan, lehenengo aldiz, Irungo Moskuko jaietako pala txapelketan hiru maila jarri zituzten, hirurak mistoak, eta sekulako arrakasta izan zuen, inoiz baino bikote gehiagok eman zuen izena txapelketan, hain justu aukera zabal horregatik: bakoitzak bere burua kokatu zuen egokien ikusten zuen mailan eta erosoan jokatu zuen mailan. Partiduak oso orekatuak izan ziren, eta pentsa, finalik politena hirugarren mailakoena izan zen. Lehenengo mailan gizon askoz gehiago zegoen, bigarrenean orekatuagoa zen eta hirugarrenean emakume gehiago zegoen, baina formula oso arrakastatsua izan da, parte-harteari begira.

**Emakumeen pala txapelketetan eta txapelketa mistoetan hartzen duzue parte, ezberdintasunik nabaritzen al duzue?**

**Karrera:** Nik ez dut ezberdintasun handirik nabaritu...

**Zuazu:** Nik ere ez. Noizbait bai egokitu zait bi gizonetako aurkariak gu ikusi eta adieraztea "tira, bi emakumeren



kontra denez, lasaiago jokatu dezakegu, *peloteoan* ere aritu gaitezke". Halakoe-tan amorrua sentitu dut, "a bai? Ikusiko duzu ba!". Horiek berak dira, gainera, emakumeen aurka galduz gero haserretzen direnak.

**Karrera:** Klasiko bat: "Emakume izateko ongi jokatzen duzu"; zorionez, aspaldi ez dut halakorik entzun. Eta txapelketei lotuta ez, baina garai batean, aisialdian palan aritzen ginelarik, konturatu nintzen palan aritzeko geratzeko ni ez nindutela inoiz deitzen (nire kuadrillatik kanpoko gizonen artean), baina nire kuadrillako gizonak bai deitzen zituzten. Frustratu egiten ninduen, eta badakit ez zela maila kontua, emakumea naizelako zela.

**Txapelketa mistoa izan edo emakumeen txapelketa izan, berdin zoazte partiduetara?**

**Zuazu:** Inoiz ez dakizu zer gertatuko den, egunaren eta faktore pila baten arabera partidua modu batera edo bestera joan daitekeelako. Gu beti irabaztera ateratzen gara, emakumeen nahiz gizonen aurka jokatu, berdin, eta partidu batzuk asko aldatzen dira, bat-batean asmatzen hasten garelako, edo huts asko egiten... Partidua sortzen goaz.

**Karrera:** Beti goaz jokatzera, ondo pasatzera eta bide batez irabaztera. Bikotea ahulagoa dela? Ba apur bat suabexeago ariko gara agian, helburua delako denok aritzea eta disfrutatzea. Aurkariak oso onak direla? Ba helburuak jaisten joango gara agian, "benga, 15 tanto egitera iritsi behar dugu"; erronkak egokitzen goaz.

**Zuazu:** Baina ez dugu amore ematen.

“ ”

**Mistoaren afera ez da denak zaku berean sartuko ditugun ala ez soilik, baizik eta kirolaren xarmaz bai mutilek bai neskek gozatzea**

Loiola Zuazu

**Lehiakorrak zarete, beraz.**

**Estereotipoak dio lehia batez ere gizonon kontua dela eta emakumeek parte hartzea eta ongi pasatzea bilatzen dutela.**

**Zuazu:** Emakumeen txapelketetan ere kristoren lehia ikusten da.

**Karrera:** Lehiakortasuna osasuntsua izan daiteke, gehiago ematera bultzatzen zaituen zerbaite delako.

**Zuazu:** Kokatzen zaitu erronka batzuen aurrean, eta erronka horrek ez du zertan izan irabaztea, baizik pilotari ongi ematea, pilotetara iristea, bikotekidearekin ongi komunikatzea...

**Karrera:** Hain justu, batzuetan partidua galduta ere, sentsazio oso onarekin bukatzen duzu, partidu oso ona egin izanarena, gustura aritu izanarena. Baina lehiakortasun ezberdinak daude; oraindik ere bikoteak ikusten dituzu haien artean haserretzen direnak, irabazten ez badute edota kideak huts egin badu.

**Zuazu:** Bikotekideen arteko giro txar

horiek gehiago ikusi ditut gizonen artean, lotuta dago hein batean frustrazioa kudeatzen jakitearekin. Kirolarekiko harreman osasuntsua garatu beharko genuke. Galduz gero edo gaizki jokatuz gero, ez diot nire buruari ezer leporatu behar, ahalegintzen eta erronka berriak jartzen segitzeko motibazioa izan behar du kirolak, hobetzen segitzeko.

**Hurtzaro-gaztaroan, eztabaida izaten da ea zer komeni den, kirol mistoa ala neskak eta mutilak bananduta aritzea.**

**Karrera:** Kirol mistoan nahi izateko, elkarrekin aritzea naturaltasunez bizi behar dute neska-mutilek, hori lantzea da erronka. Eta bitxia da, eskolan eta beste esparru batzuetan elkarrekin daudelako, natural.

**Zuazu:** Gero eta txikiago, orduan eta naturalagoak dira harremanak, eta pixkanaka hazten goazela, banandu egiten gara. Hori galtzen joaten da, nahiz eta elkarrekin hezi diren neska-mutillak.

**Karrera:** Hemen, gure hirian, eskola kirolean neska gutxiago aritzen direla eta hainbat azterketa abiatu zituzten duela hiru urte, eta ikusi zuten talde batean aritzeko sentitu behar duzula taldea zure, eta bide horretan talde ez mistoak egitea erabaki zuten, neskak erakartzeko. Ez mistoa zen neskak kirolera animatzeko amua, eta helburua zen gero talde mistoetara igarotzea. Lanketa handiaren ondorioz, lortu zuten neska gehiagok izena ematea, baina lanketa hori pixka bat jaitsi denean, joera berriro izan da nesken parte-hartzea gutxitzea.

**Zuazu:** Pausoz pauso egiten da bidea eta lehenengo neskak animatu egin behar dira zenbait kirolean, gozatu egin behar dute, eta gero erabaki ea neskekin, mutilekin ala nola nahi duten aritu. Emakumeen pilotak, adibidez, oso ikusgarritasun gutxi du, eta ez bada ikusten, eragitea eta erreferenteak sortzea zaila da. Erreferenteak sortu ahala, animatzen dira probatzen. Azken finean, mistoaren afera ez da denak zaku berean sartuko ditugun ala ez soilik, baizik eta kirolaren xarmaz bai mutilek bai neskek gozatzea. Adibidez, haurra nintzelarik oso inportantea izan zen pilota gustuko zuen beste neska bat lagun izatea, biok batera egin genuelako bidea lehenengo pilota elkartera, gero txapelketetara... Babes hori izan ez banu, bakarrik egon banintz, agian ez nukeen hainbesteko motibazioa izango. Atxiki pilota elkarteak lan polita egin du emakumeen artean laguntasun eta babes hori sortzen, babes hori sentitzen baduzu pixkanaka joan zaitezkeelako erronka berriei heltzen. ●